

AGIRIKOZALEAK ETA IZATEZALEAK (FENOMENALISTAK ETA EKSISTENTZIALISTAK)

Husserl'ek ipiñi eutson oiñarria fenomenoloji edo agirikozaletasunari eta filosofi au laster zabaldu zan Europa osoan eta emendik Ameriketara. eta Asia'ra..

Filosofo'rik audienak Max Scheller eta Heidegger dira. Azkenengo au lenago aztertu dogu.

Iturri beratatik sortuko dira gero izatezaleak edo eksistentzialistak. Bide au Heidegger'en bidez eldu zan Sartre'gana eta Camus'egana.

Fenomenolojiaren bide onetan daukagu Edith Stein andrea. A judatarra zan kristiñau egin eta lekaike karmeldarren artera sartu zan. Naziak arrapau eta judatarrentzat euken laban erre eben. Gaur santa eta Europa'ren zaindari dogu.

HUSSERL 1859-1938)

Judatarra da baiña kristiñau egin zan. Asko idatzi eban eta beti fenomenolojiaren alde. Artxibo aundi baten dagoz bere esku idazki asko. Agirikoa edo fenomenoaren artzen dogunean, gauzea bera gueganatzen dogu..

MAX SCHELLER (1874-1928)

Ama judatarra eban eta aita be ezkontzeko judatar egin zan. Bera batxiller ikasten egoala egin zan katoliku.

Diltey'ren ikasle izan zan Berlin'en. 1901n. urtean Husserl ezagutu eban eta beroneri jarraitzen asi zan. Irakasteko baimena kendu eutsoen ezkontza-arloan oker jokutzen ebalako

1913n. urtean asi zan balioen filosofia irakasten eta orretan da gaur ezaguna. Azkenean dana-jainko edo panteista agertzen da.

Gizonak ondo daki zertasuna (esentzia) eta izatasuna (eksistentzia) banatzen.

Balioak dira bere gai berezia: 1) Zentzunen balioak, esaterako atsegiña, poza... 2) Biziaren balioak, esaterako egoera ona, zintzotasuna, adorea... 3) Gogoaren balioak: Egia, ederra, zuzena... eta gorengo dagozan. 4) Erlejiño-balioak. Beti gagoz goragoko balioetara deituta, baiña orretarako beragokoak ez dabe izan bear oztopo.

Gizona izatez erlejiñoduna da..

MARTIN HEIDEGGER (1889-1961)

Bide orretara sartu lei au be, baiña beste leku baten agertu dogu. Batzuk izate-zalea edo eksistentzialista dala diñoce.

IZATE-ZALEAK (Eksistentzialistak).

Oneixek dira XX gizaldian entzuterik geien lortu daben filosofoak. Guda bien artean zabaldu zan filosofi-bide au eta 50n. urterako zabal egoan Europa guztian eta Ameriketean. Sartre, Camus eta Marcel dira zabaltzailleak. Guda-giroan bizi diran filosofo itunak dira. Kierkegaard'en larria ez dauke aitzuta eta Nietsztze be buruan darabille, baiña idazle onak dira eta atsegiña zabaldu eben. Ez dauke guztiak jokabide bar-diña.

JASPERS (1883-1969)

Nazien aurka jokatu eban eta kalteak etorri jakozan, batez be irakatsi-eziña..

Oiñarria: Zientziak eta filosofia zelan alkatu eguneroko bizitzagaz. Jainkoagana ezetzaren bidetik eltzen gara.

SARTRE (1905-1969)

Sendia protestantea zan. Ezkondu barik alkartuta bizi izan zan bizitza osoan.

Bere lanik onenak "Izatea eta ezereza" (1943) eta "Nausea" edo asperkuntza dira.

Idazle oso ona da, elebarriak eta antzerkiak idazten be bai, baiña beti izate-zaleen bidean.

Naziak atxillotu eben baiña aske geratu zan.

Bere filosofia agertzeko "Denpora barriak" eritxon aldizkaria argitaratzen eban bere lagunak batera.

Marx'en bidea onartzen eban, baiña era berezian..

Jainko-bakoen artekoa da, bere ustez Jainkoa izateak gizonaren askatasuna kentzen daualako.

Gaur jarraitzaille gitxi geratzen jakoz.

Olazar'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!